

## Andoni Aizpuru gurean

Oraina eta geroa hizketagai ▶ 3



PATXI ZUBIZARRETA ▶ IDAZLEA

## «Goierri idazle harrobi ona da, literaturan zer esana badu»

LIBURUA ▶

'Atxiki sekretua' ipuin bilduma argitaratu du ordiziarrek

EHUN URTE ▶

Euskal Jaien urteurrenean buru-belarri dabil lanean ▶ 4



Boluntarioak festan. U.BARANDIARAN

BEASAIN ▶

## Boluntario Egunaren oihua, behar duenari laguntzea

'Boluntarioen ekintza guztion onerako da' lemapean hamahiru elkartek ospatu zuten larunbatean ▶ 2



IDOIA LUZURIAGA

## Galduta zeuden festak pizten Etxeberrin

ZUMARRAGA ▶ Toka-lekua inauguratu zuten igandean, eta asteburuan beste hainbat ekitaldi ere egin dira, auzoko jaiak berreskuratuz ▶ 6



# maizpide

I a z k a o

Deitu eta eman izena:

943 88 92 31

lazkao@maizpide.com

www.maizpide.com

Barnetegian hilabeteko ikastaroak.  
Familia euskaldunetan egoteko aukera.

Ordukako ikastaroak.

Larunbatetan Alfabetatze eta EGA ikastaroak.

Autoikaskuntza.

euskara **Bizizi!**  
euskaraz **BIZI!**

BEASAIN ▶ GIZARTEA

# Herriko boluntario taldeak omendu dituzte asteburuan

Beasaingo Gizarte Ongizate Sailak eta hainbat elkartek Hirugarren Boluntario Eguna ospatu zuten; adin desberdinetako jendea hurbildu zen urteko festara



Oriako pasealekua bihurtu zen III. boluntario-egunaren eskenatokia. U. BARANDIARAN

UXUA BARANDIARAN

Hirugarren urtez jarraian, Beasaingo boluntario elkarteak omendu nahi izan zituzten pasa den asteburuan ospatutako Boluntario Egunean.

Aurreko bi urteetan San Martin plazan antolatu zen jaialdia, baina aurrean Gernika pasealekua bihurtu zen musutruk lan egiten duten pertsonen topalekua.

*Boluntarioen ekintza guztion onerako da* lemapean, jende ugari hurbildu zen goiz-goizetik. Etxeko gaztetxoak izan ziren jaietan murgiltzen lehenak; izan ere, goizeko 10:00etan puzgarriak martxan zeuden haurren gozamenarako.

Gaztetxoek ez ezik, helduegok ere izan zuten zer ikusia eta zer gozatua; boluntario elkarteek goizeko 11:00etan hartu zuten lekukoa, eta eguerdiko 14:00ak bitartean elkarte ba-

koitza gertuagotik ezagutzeko aukera egon zen. Hori guztia musika eskolako trikitilarien doinuak egon zen alaitua.

Boluntario elkarte bakoitzak bere eginbeharra dauka. Hala ere, desberdintasunean berdina ere badira. Izan ere, guztien eginkizuna beharra dutenei laguntza ematea da.

Soldatarik kobratu ez arren, trukean beste balio batzuk jasotzen dituztela dio Esku-Batuak elkarte kide Ageda Goitiak: «Orain gehiago baloratzen

dut hemen daukaguna; dudarik gabe, itzalita neukan jendearikiko sentsibilitatea, eta orain berpiztu egin zait».

Iritzi horrekin bat dator Maribeli Lopez, Goitzat elkarte partaidea. «Boluntario egitean, gaur egun ia galduta dauden balioak jasotzen dira, eta, ondorioz, bizitza beste begi batzuekin ikusten dut», dio Lopezek. Finean, «denbora libre beste pertsona batzuekin igarotzea da boluntario garenok egiten duguna».

IMANOL ARANBURU ▶ UDALEKO ONGIZATE SAILEKO ZINEGOTZIA

## «Zoragarria litzateke elkarte bakoitzak boluntario gehiago lortzea»

Beasaingo boluntario elkartearen inguruan hitz egin du Imanol Aranburuk GOIERRIKO HITZAREKIN.

**Nolakoa izan da boluntario elkartearen bilakaera?**

Guk nahi adinako garapena ez du izan, baina geroz eta elkarte gehiago ari dira sortzen, eta boluntario gazteak ere ugartzen ari dira; hori poztekoa da. **Zerk bultzatuta hasi zineten boluntario eguna ospatzen?**

Lehendabiziko boluntario-eguna Beasainen bertan ospatu zen, Gipuzkoa mailakoa. Egia esan arrakastatsua izan zen ospakizuna, eta orduan ikusi



U. BARANDIARAN

III.URTEA ▶

PARTEHARTZAILEAK

- ▶ Nagusilan.
- ▶ Gurutze Gorria.
- ▶ Txolarte.
- ▶ Goitzat.
- ▶ Esku batuak.
- ▶ Minbiziaren aurkako elkarteak.
- ▶ Hirugarren munduaren alde lanean diharduten lankidetzak taldeak.
- ▶ Erretiratu eta pentsiodunen elkarteak.
- ▶ Osasun-pastoralak.
- ▶ Caritas.
- ▶ Txilibutxof.
- ▶ Herriak Elkarlanean.
- ▶ Odol-emaileak.

Jose Joakin Lasa Nagusilaneko kidea da; Arangoiti zaharren egoitzan bizi den bikote bat eta adineko emakume bat zaintzen ditu. Boluntario izateak zer eskaintzen dion ziurtasun osoz adierazi digu: «Behar duenari laguntza ematea izugarriko esperientzia da. Hitzek ezin da azaldu, bizi egin behar da», dio Jose Joakinek.

Norberak bere moduan, baina guztiek heluru bakarra eta bera: beharra dutenei laguntza ematea.

GOIERRI ▶

## Agintarien bisita adinekoen egoitzetara

Adinekoen Nazioarteko Eguna ospatu zen ostiralean. Bisitan etorri ziren Joxe Joan Gonzalez Txabarri Gipuzkoako diputatu nagusia eta Esther Larrañaga Gizarte Politikako diputatua Goierriara. Zegaman eguneko zentroaren irekieran izan ziren; Beasainen zaharren egoitza, eguneko bi zentroak eta etxebizitza tutelatuak bisitatu zituzten.



Beasaingo eguneko zentroa.

ZEGAMA ▶

## Gaurtik hasita, gimnasia jubilatuentzat

Jubilatu eta pentsiodunek gimnasia egiteko aukera izango dute gaurtik aurrera. Ikastaro hori Olarango Gizarte Zentroan egingo da, astearteetan eta ostegunetan, 10:30etik 11:30era. Izena eman nahi duenak oraindik badu horretarako aukera. Udaletxera joan, eta herrian erroldatuta daudenek 12 euro ordaindu beharko dute, erroldatu gabeez 42 euro, eta pentsiodunek 21.

BEASAIN ▶

## Jubilatu eta pentsiodunentzat tailerrak

Hasi dira Jubilatu eta Pentsiodunen Elkartearen adinekoen zuzendutako tailerrak. Egur-tailaketa ikastaroa eta eskulanean tailerra martxan dira jada, baina oraindik eskaintza zabala dago. Gaur, hariekin egiteko lanetan ikastaroa hasiko da. Bihar pintura tailerra, eta etzi yoga klaseak. Ikastaroetan parte hartu nahi dutenek 12 euroko matrikula ordaindu beharko dute klaseko lehen egunean.

**ARGI**  
OPTIKA

Ainhoa Arce Mendia  
Optico Optometrista

ONGI ETORRI  
GOIERRIKO HITZARI

NAFARROA  
ETORBIDEA, 14  
BEASAIN - GIPUZKOA  
943 88 31 10

GIZARTEA ▶

# Eguraldiaren satelite goierritarra

Telebistako bizitasuna dario Andoni Aizpuru gabiriarrari eguneroko bizitzan; «ezaguna izateak ez nau aldatu»



Andoni Aizpuru orain bizileku duen Elorrioko plazan. AIMAR MAIZ

## «laz baino elurte handiagoa aurten»

Nahitazko gaia genuen eguraldiarena Aizpuru aurrean edukita. Pello Zabala maisu eta aitzindaria beti hizpide, udazken-negu parterako aurreikuspena eskatu diogu.

«Udazkena lehorretik joango da, uda bezalaxe. Tarteka lanbro pixka bat, noski, baina gehienbat lehor». Tenporek informazio nahiko zehatza es-

kaintzen diote, «epe luzerako dagoen prebisio sistema eraginkor samar bakarra da. Pilarrikako zubirako giro polita agindu zuten; ilargialdia ere bada orduan».

Azarorako ia elurraren zain jarriko dela aurreratu digu, «azaroaren erditik aurrera horixe agindu zidan Pellok». Iazko negua elurtsua izan bazen

oraingoan gehiagorako esperantza dutela esan digu. «Aurten baliteke azkenekoa baino elurte handiagoa botatzea. Eguraldiak 19-20 urteko zikloak betetzen ditu, eta 1985ean izugarritzko elurtea izan zen, astebete geratu gabe aritu zen. Ilbeltzetik aurrera argi beraz!». Elur nahia badu, behintzat, Andonik. ◀

AIMAR MAIZ

**E**lorrioko plazan egin dugu hitzordua Euskal Telebistako gizon ezagunenetakorekin. Andoni Aizpuru gabiriarrak, Arratiara ezkondua, puntu-puntu azaldu da, korrika-entrenamentua utzi eta kafetxo bat hartzeko denborarekin.

Izan ere, udazken mugitua dauka Andonik: «Azpeitia-Azkoitiko maratoi erdia egin nuen, Diegoren omenez; orain, azaroan, Behobian parte hartuko dut, eta hurrena Donostiako maratokia egitekotan nabil». Aspaldi bere buruari jarritako erronka bete nahi du, 40 urte egindakoan maratokia korritzearena, nahiz «hezurrak gogortzen hasiak» izan. Gaur arte hiru ditu amaituak: «Sano bukatuta gainera, arrastaka ibili gabe».

Kirolzalea izan da Andoni betidanik; «baita parrandazalea ere» erantzuten du, hitzetik hortzera. «Biak uztartzen saiatu naiz, parranda eginda ere hurrengo egunean mendira bueltatxo bat ematea gustuko dut». Baserría —abere batzuk baditu etxean—, loreak eta artzain mundua ditu afizio, besteak beste. «Lau hormen artean ezin dut egon, kanpoa behar dut, zabalatasuna», aitortu digu.

### Telebistatik ezagun

11 urte daramatza gabiriarrak ETBn. Lehenago euskara irakasle izan zen Errenteriako udal euskaltegian. Aurpegi ezagun bihurtu aurreko eta ondorengo Andoni «iguala» dela garbi dauka. «Ezaguna zarenean askotan natural jokatzeko zaila da, jendeak zer esango ote duen horregatik, baina saiatu naiz ahalik gutxien aldatzen». Betiko lagunekin, betiko jendearekin segitzen du eguraldi-gizonak; Gabiriara ere agertzen da, «nahi baino gutxiago, hala ere».

Jende aurrean hitz egitea ez da inoiz eragozpen izan Andonirentzat. Bitxikeria bat kontatu digu: «Herriko festetako moztorro gauan behin Jose Maria Iñigo imitatuz atera ginen; orduan sortu zitzaidala uste dut aurkezle izateko tirria».

Eguraldia eta Bertatik bertara saioaren eskutik sartu zen Aizpuru iluntzero euskal etxetan. Iragarpenekin hasieratik bertatik, eta gertuko albisteen

### DI-DA BATEAN ▶

**Azken oporlekua?** Menorca. Lasaia eta polita.

**Mendia ala itsasoa?** Mendia.

**Tenporak ala satellite adiskidea?** Satellitea epe motzerako; tenporak luzerako.

**Pello Zabala ala Maldonado?** O Pello Pello...

**Reala ala Athletic?** Athletic. **Eskuetan duzun liburua?** *Soinujolearen semea*.

**Irakurritako onena?** *Behi euskaldun baten memoriak*.

**Leku magikoena?** Urbia.

**Sagardoa ala txakolina?** Sagardoa. Parrandarako garagardoa.

**Eskiatu ala parranda?** Gauean juergatxoa, neurrian; goizean jaiki eta eskiatu, eta arratsaldean siesta.

magazinearekin zortzi urte igarotu ditu. «*Bertatik bertara*-ren zikloa bukatu zela somatu nuen; errepikapen bihurtzen ari zen, eta familiarentzat denbora asko kentzen zidan». Eguraldiaren tarteari ukitu berria eman nahian dabil, beste modu batera esplikatu, jendearen partehartzea bultzatu. «Eguraldia bizi egiten dut», zehaztu digu.

### Gaurko telebistaz

Gaurko telebistak orokorrean eskaintzen duena ez du oso gogoko. «Jendeak *reality show*-ak nahi ditu, orduan eta iskanbilatsua goak hobeto. Horiek daukate audientzia, eta audientziak telebistaren kalitatearen giltza. Ikusleak telebista itzaltzen jakin behar du, eta jarrerara aldatzen hasi: ikusteko ezer onik ez dagoenean irakurri, edo hitz egin».

Bizkaian bizi arren ez dauka ahazteko Andonik jaioterria: «Ni beti gabiriarrak». Euskal sena eta kanpozaletasuna txertatu dizkio Goierriko izaeran: «Festa giroarekin ere asko gogoratzen naiz». Oraingo bizilekua ere maite du, noski: «Arratia inguru hau Bizkaiko goierrialdea izango litzateke; paraje zoragarria da». Elorrioko plazan herritarrek behin eta berriz kaso egiten diote. Baita berak erantzun ere.

Joandako lekuan bizitzen badakiela ezin uka. Agurtu eta Iurretarrantz abiatu da; Anbotoko lainoei begira, seguru.



HITZA hartzen dugu!  
goierri euskaraz

Elosegi, 16 • Tel.: 943 88 65 00 Faxa: 943 88 79 71 • 20210 LAZKAO - GIPUZKOA

PATXI ZUBIZARRETA ▶ IDAZLEA

# «Haurrek goxoki batekin bezala gozatuko dute helduek ere liburuarekin»

'Atxiki sekretua' liburua kaleratu du, eta Ordiziako Euskal Jaien ospakizunetan ere buru-belarri sartuta dabil lanean

MAIDER DEL OLMO

Sorginei buruzko ipuin bilduma idatzi du Patxi Zubizarreta ordiziarrak. Istorio zaharrek, magikoak, ekarri ditu gogora. Donostian aurkeztu du liburua orain dela gutxi. Haurrek bakarrik ez, helduek ere gustura irakurriko duten kontakizuna da *Atxiki sekretua*.

**Nola sortu zitzaizun sorginei buruzko liburua idazteko ideia?**

Elkar argialetxeak eskatuta hasi nintzen Barandiaran, Azkue eta Lafiteren ipuinak aztertzeko. Materiala bildu, gustuko ipuinak aukeratu eta asmatutako istorioan txertatu ditut. Liburuko protagonista Graziana amona da, bakar-bakarrik zaborrez inguratua bizi den emakumea. Egun batean Joana neskak ezagutu du, eta Grazianak bere jakituria kontatuko dio gazteari ipuin horien bidez.

**Haurrei begira idatzi duzu, baina helduei ere gustatuko zaiela esan zenuen aurkezpenean. Nola animatuko dituzue irakurtzera?**

Helduek oraindik ere mespretxuz begiratzen diote haurren literaturari, ez dakite zer galtzen duten. Honako liburua bonboi bat jatea bezalako da, plazerra berehalakoa da, bat-batekoa. Magiaz bete dago. Hemendik aita-amak animatu nahi ditut liburua irakurtzera. Haurrek goxoki batekin bezala gozatuko dute. Gazteek ere bai, espero dut, nahiz eta dezente kostatzen zaidan haien lekuan jartzea. Nahiko arrotzak egiten



IMANOL OTEGI/ARGAZKI PRESS

## EUSKARA

«Euskaraz idaztea nigan zerbait naturala da, nire literatur hizkuntza da, eta ez diot horri buelta gehiagorik ematen»

zaizkit gaur egungo belaunaldiak.

**Euskaraz idatzi dituzue orain arte liburu denak. Ekintza naturala izan da ala aurretik hartutako erabakia da?**

Euskaraz idaztea zerbait naturala da nigan. Nire literatur hizkuntza euskara da, naturaltasunez egiten dut, ez diot horri

## HAUR LITERATURA

«Helduek oraindik ere mespretxuz begiratzen diote haurren literaturari, ez dakite zer galtzen duten»

buelta gehiagorik ematen. Gaztelan ezin izango nuke idatzi.

**Orain 20 urteko Ordizian giro-tuta, iaz *Barrikadak* nobela atera zenuen, gatazka politikoaz eta sufrimenduz. Zein oroitzapen duzu gaztaroko urte haietaz?**

Ordizian giro oso gatazkatsua

bizi izan genuen gaztetan. Ilusio handia genuen, hala ere. Aldaketak berehala etorriko zirela uste genuen, Euskal Herriak beste forma politiko bat izango zuela segituan. Gerora ikusi dugu herri honetan aldaketak oso mantso gertatzen direla.

**Nola ikusten duzu 2004ko Ordizia?**

Badira 15 urte Gasteizen bizi naizela, ez naiz Ordiziara askotan joaten. Jaioterriarekin sentimendu kontrajarriak ditut. Askotan maite dut Ordizia, baina aldi berean urrundu egin behar dut bertatik. Hiriak asko erakartzen nau.

**Dena dela, Ordiziako Euskal Jaien mendeurrenako ospakizunetan buru-belarri ari zara lanean.**

Bai. Mendeurrenarena jakin nuenean jaioterriari zerbait berezia eskaintzeko gogo piztu zitzaidan. Ordiziako Udalak aukera eman zidan, eta hortik hainbat ekimen sortu dira. Lehena irailaren 24an egin genuen herriko antzokian, *Baina nik poza kantatzen det: Ordizia gizaldi baten historia* ikuskizuna. Olatz Zugazti eta Pello Ramirez musikariak aritu ziren. Oso ondo atera zen, eta ikuskizuna Goierriko beste herri batzuetara zabaltzea pentsatzen ari gara orain.

**Ostiral honetan Ordiziako Euskal Letren Eguna egingo duzue. Nolako ekitaldia izango da?**

Goierriko hainbat idazleek parte hartuko dute, Pello Irizar musikariarekin batera. Idazleek beraiek aukeratutako testuak irakurriko dituzte musikaz lagunduta. Goierriko badaude literarioki zer eskainia duten idazleak, harrobi ona dago alde horretatik.

**Gaurtik aurrera Goierriko badu euskarazko egunkaria: GOIERRIKO HITZA. Nola hartu duzu berria?**

Notizia osasungarria da, zalan-tzarik gabe. Normaltasun keinu bat bezala ikusi dut, euskara naturaltasunez erabiltzeko urrats baten gisan. Horrez gain, albisteen zurrunbiloan galdu gabe, HITZAK hausnartari eta edertasunari lekutxo bat egiten badio, askozaz hobe.

LAZKAO ▶ IBILALDIA



Ibiltariak irteeran. A. APALATEGI

## Gipuzkoako jubilatuen XIV. ibilaldia

Gipuzkoako bazter guztietatik etorritako 608 lagun bildu ziren Lazkaoko irteeran

ARKAITZ APALATEGI

Joan den asteburuan ospatu zen Lazkaon Gipuzkoako jubilatuen eta pentsionisten elkartek urtero antolatzen duen ibilaldia.

XIV. edizio horretan, zortzi kilometro eta berrehun metroko ibilbidea egin zuten, Orobione jubilatuen egoitzatik hasita, herri osoa zeharkatuz.

Isidoro Otero, Goierriko Egoitza Sozialen elkarteko lehendakariak adierazi digunez, «612 lagun espero genituen, baina azken momentuan lau partaidek huts egin ziguten».

Behin ibilaldia bukatuta, bazkari erraldoia prest zuten jubilatuen denek kiroldegian: 650 lagun. Antolaketa lagundu zutenak ere batu zitzaizkien ibiltariei. Bazkalondan, berriz, trofeo banaketa egin zen, eta eguna parte hartzaileen artean egindako zozketa batekin amaitu zuten.

EPEA.  
URRIAREN 8a  
KLASEAK:  
ASTELEHENETAN,  
17:30-19:00  
ORDIZIAKO BARRENA  
KULTUR ETXEAN

Argi Berri elkarte,  
Gipuzkoa, 15 • ORDIZIA  
Telf.: 605 708 502 (Mikel)  
649 011 262 (Aitor)



## HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu

# 943 30 43 46

Edozein kexa, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai

SANTA FE JAIK ▶

# Gaur hasiko dira herriko jaiak

Patxi Aierbe: «Herriarrek ekitaldietan parte hartzen badute, politagoa da dena»

ARKAITZ APALATEGI

Zaldibiako Santa Fe jaiak gaur hasiko dira. Mondejujaleen martxa eta plazan egingo den txupinazo berezia izango dira festen hasierako lehen ekitaldiak. Bertan, herriko txikienek mondejuak egiteko osagaiak eramango dituzte, Olalde baserriatik abiatu eta herriko plazara arte; *Mondejuzale martxak* lagunduta. Iluntzeko zortzietan, plazako ekitaldiak amaitu ondoren, herriko mondejuak dastatzeko aukera izango da. Gaueko giroa alaitzeko berriz, Kiñu taldeak kontzertua eskainiko du.

Zaldibiako alkate Patxi Aierbek festa hauetan «herriko jendearen partehartzea» azpimarratu nahi izan du. Mondejujaleen martxa «azkeneko urteetan sortu eta orain gorpuzten» ari dela ere esan digu.

Aurtengo Santa Fe jaiak berrikuntzak ere izango dituzte; hauen artean, atletismo probak, «herriarren partehartzea bultzatzen duten» herri kirolak eta zaldi karrerak. Alkatearen ustez, ekitaldiak «kanpotik ekartzea oso erraza da, baina herriarrek parte hartzen badute eta bertan egiten badira, politagoa da dena».

Azkenaldian herri txikietakoa jaiak izan duten beherakadaz galdetuta, Aierbek dioenez «joera hori nabaritzen da, baina uste dut Zaldibia salbuespena dela». Orain festak herriarrentzako antolatzen omen dira, eta garai honetan Goierriin beste festa garrantzitsurik ez dagoenez, «Zaldibiara jende asko etortzen da».

Bukatzeo, Zaldibiako alkateak zera gogorazi nahi izan die herriarrei: «Urtean egun batzuk arazoak ahazteko izan ohi dira; herriar guztiok elkarrekin ahal den ondoen eta ahalik eta txukunen pasatzeko egunak dira hauek».



Joan den urteko Mondejujaleen martxan parte hartu zuten haurrak. A.APALATEGI

AMAIA ETXABE ▶ GURASOEN ELKARTEKO KIDEA

## «Mondejuzaleen martxaren inguruan herri mugimendu oso bat sortu da»

Zaldibiarra. Udaletxeko zinegotzi izan zen, eta orain guraso elkarte kidea da. Umeak ikastolan utzi orduko hartu gaitu. **Zertan datza Mondejujaleen martxa?**

Duela hiru bat urte sortu zen. Guraso elkartean hainbat eztabaida izan eta gero, Mondejujaleen desfilea egitea erabaki genuen. Hor lan handia egin duena, Agustin *Takolo* da, bera hasi baitzen hau dena antolatzen. Beste herriar batek, Izaro Garmendiak, *Mondejuen martxa* izeneko kanta egin zuen, eta hori erabiltzen dugu danborradarako musika moduan.

**Zein ibilbide egiten duzue?**



ARKAITZ APALATEGI

Olalde baserriatik atera eta goitik behera herri guztia zeharkatzen dugu, plazara heldu arte. Han, martxa jo eta txupinazoarekin amaitzen dugu.

**Nolakoa da jendearen partehartzea?**

Agustin hasten da, gauza hauetan artista da eta. Gero gurasoak hasten dira parte hartzen, eta asko inplikatzeko dira. Desfilearen inguruan herri mugimendu oso bat sortu da. Ikustera ere jende asko etortzen da. Talde ugari hartzen dute parte: dantzariak, txaranga, txistulariak, eta abar. Azkenean ume guztiak ere hor daude, eta gurasoak

ere bai, noski. Denak inplikatu. Azken batean garrantzitsuen herriak parte hartzea da. Aurreko legegintzaldian, adibidez, ahalegin berezia egin zen Zaldibiako Udaletik bertatik parte hartzea bultzatzeko.

**Bukatzeo, zer mezu emango zenieke herriarrei?**

Santa Fe bezpera da, eta mondejua gustatzen zaionari etorri eta probatzeko esango nioke, etorri gero ondo pasatuko dute-eta. Eta une hauetan arrazoi ezberdinak direla-eta Zaldibian bertan egoterik ez duten guztiei eskuminak eta agur bero bat. ◀

EGITARAUA ▶

GAUR (URRIAK 5)

**19:00.** Olalde baserriatik hasita, Mondejujaleen desfilea, herriko txistulariek, Goiztiri txaranga, Iztueta Dantza Taldeak eta danbor joleek lagunduta.

**Ondoren.** Mondejujaleen martxa herriko plazan. Mondeju eta Mondexilaren txupinazoak. Jarraian *euri berezia*, eta amaitzeko, kalejira plazan.

**23:00.** Dantzaldia Kiñu musika taldearekin.

DATUA ▶

**70 urtetik gora.** Zaldibiako dantza taldeak historia luzea du. 1933an bi dantza talde zeuden herrian. 1936ko Espainiako Gerra zela eta etenaldia izan ondoren, taldea 1945ean itzuli zen berrira, Juan Inazio Iztueta hil zeneko mendeurrena ospatzeko.



Sortzetik...  
Izatera

Beasaingo ikastola

- 0-12 urte
- Bertan prestatutako janaria
- Ingelesa 3 urtetatik
- Geurean, umeak euskaldun eta euskaltzale
- Urte osoan zabalik

0-2 urte: CAFeko langileen seme-alabentzako %20ko beherapenak

Goierriko haurren HITZA

Urbalde 2 z/g

943 88 96 17

www.andramendi.com

haurtzaindegia

## LEGAZPI ▶ BERTSOLARITZA

**Bertso-Olariak taldekoek ikasturte berria hasi dute**

Irailean zehar Haztegi ikastolako ume eta gaztetxoentzat bertsolariak ikastaroak eskaini badituzte ere, larunbatean hasi zuten ikasturtea Bertso-Olariak Itxaropen auzoko egoitzan

MIRIAM LUKI

Bertsolaritzaren presentzia herrian mantentzea helburu nagusia duen Bertso-Olariak taldeak larunbatean hasi zuen ikasturte berria. Bosgarren ikasturtea da, hain zuzen ere, eta hasieran helduekin lanean hasi baziren ere, lau urte daromatxate ume eta gaztetxoek bertso eskolak eskaintzen.

Bertso-Olariak taldeko kide Nerea Elustondo eta Asier

Iriondok adierazi dutenez, irailan zehar Haztegi ikastolan ikastaroa eman badute ere, Legazpiko beste ikastetxeetako gaztetxoengan ere bertsolari-tzarekiko interesa pizteko xedea dute. Irakasle lanetan jarduten du Asier Iriondok, eta hauxe esan digu: «Irakasteen, gure metodologia jolasean oinarritzen dugu, ikasleak modu ludikoan bertsolariak munduan sar daitezela: doinuak eta bertso neurriak erakutsi, baita

bertsolari munduko istorio eta anekdotak ere».

Bestalde, proiektu berriei dagokionez, Bertso-olariak taldeko kideentzat interesgarri litzateke aurretik Legazpin bertsolariaren inguruan lan egin duten pertsonekin batera ekimenak bultzatzea. Iriondok dioenez, «1960ko hamarkadan Legazpin bertso txapelketak antolatzen zituen jende talde bat badago. Egin ditugu zenbait lan Jokin Matxinandiarena,

Bittor Agirre eta Iñaki Azarolarekin. Gure asmoa, belaunaldi hartakoekin eta ondoren etorri diren guztiarekin ekimenak gauzatzea da».

Horretaz gain, urtero antolatu ohi dituzten ekitaldiak ere egingo dituzte, hala nola: bertso afaria, jaietako bertso antzerkia, Agorreko Santikutzetako saioa eta urte bukaerako bertso ekitaldia.

Bertso-Olariak taldearen eskolak larunbat arratsaldetan



Bertso-Olariak-en egoitzan ume batzuk, larunbatean. M.L.

ematen ditu Asier Iriondok, 16:00etatik 17:00etara, Itxaropen Auzoko bosgarren zenbakian. Izena emateko ere hara jo behar da.

## ZUMARRAGA ▶ FESTAK

**Galdutako festak pizten**

Etxeberrin giro politean berreskuratu zituzten jaiak aurreko asteburuan

IDOIA LUZURIAGA

Etxeberrin auzoa jai giroan murgilduta egon da pasa den asteburuan. Hain justu, berrikuntza obrak bukatu zirenean egin zuten toka-lekuaren inaugurazioarekin batera, auzoa ere berriro inauguratu dute. Eta, horretarako, ekitaldi ugari antolatu zituen Udalak, eta hara joan ziren zumarragar eta urretxuarrak giro paregabea jarri zuten.

Horrez gain, auzoko jaiak ere berreskuratu nahi izan dira. Berez irailaren amaieran eta urriaren hasieran ospatzen ziren, baina duela hamarkada bat inguru bertan behera gel-

ditu ziren, beste zenbait auzotan gertatu bezala. Auzokide talde bat festa haiek berreskuratzeko prest agertu da aurreantzean, eta horren guztiaren lehen pausoa asteburuan egin zen.

Sekundino Esnaola musika eskolako trikitilariak larunbatean eta Zumarragako Musika Bandak igandean jarri zuten kalean musika. Gainera, larunbat gauean Euskodiskorekin dantzaldia izan zen.

Dena den, egitarauaren protagonista nagusietako bat tokalekua izan da, bertan ospatu baitzen larunbatean Euskadiko Toka Txapelketako sailkapen fasea eta igandean, inau-



Euskadiko Toka Txapelketako ospakizunaren barnean inauguratu zen ofizialki toka-lekua. I. LUZURIAGA

gurazio ofizialaz gain, finala. Larunbat arratsaldean, berriz, petanka saioa izan zen, horretarako ere egokitzen baita leku bera, jarduera honek herrian jarraitzaile gutxiago baditu ere.

Ostiralean eskainitako egitarauaren aurkezpenean Zumarraga-Urretxuko toka taldeko ordezkariak, Ino Ugarteburuk eta Jesus Pascualek, argi utzi zuten toka-lekuak oso ondo asetzen dituela bi herrietako beharrak.

Are gehiago, herritarrengan zaletasuna piztu eta areagotu egin du zenbait kasutan; beti omen dago inguruan jende ugari, horrek ere auzoaren bizimoduan eragin positiboa izan duen seinale. Federazioaren arabera, txapelketa ofizialak egiteko toki aproposa da, neurriak, kokapena eta bestelako ezaugarriak egokiak baititu. Zentzu horretan, Udalak oso

kontuan izan zuen Federazioaren iritzia obra garaian, ahalik eta erabilpen zabalena emateko asmoarekin

Herriko toka taldeko partaideek bitxikeria moduan esan zuten, pasa den astean txapelketarako prestaketa Ezkio-Itsasoko Santa Lutzi auzoan egin behar izan zuten, Etxeberrikoan jende gehiegi biltzen baitzen; beti ere hori oso ona dela azpimarratu zuten. Zaletasun hori, gainera, adin ezberdinetako herritarrengan zabalitzen ari da.

**Bidegorria**

Auzoaren aldaketa honetan ez da izan toka-lekua eragile bakarra. Anton Arbulu alkateak azpimarratu zuen bezala, bidegorriak zeresan handia izan du. Egunero eta orduoro bizilagun ugariak zeharkatzen dute

Etxeberrin, bidegorrian gora eta behera.

Bestalde, azken hilabeteetan egin diren berrikuntzek itxura aldarazi diote auzoari. Besteak beste, aparkaleku berria, haur parkea, etxeen aurrealdean konponketa eta bestelako lanak eraman dira aurrera.

Arbulu adierazi zuen bezala, duela urte batzuk Etxeberri auzoa Zumarragaren erdigunetik banandua bazegoen ere, gaur egun herrian guztiz integratu da, duintasun osoz. Bere nortasun eta bizitza propioak bere horretan mantendu ditu, hala eta guztiz ere.

Aipatutako berrikuntza hauetarako guztira 650.000 euro inguruko inbertsioa bideratu da. Udalak beste auzo batzuetan antzerako hobekuntza lanak egiteko asmoa du, hala nola Leturia edota Antonino Oraan.

URRETXU  
ZUMARRAGA

IKASTOLA

HITZARI  
ONGI ETORRIA EMANEZ

IKASTOLA

Tel.: 943 72 00 26 - 943 72 32 94  
urretxu@ikastola.net

LIZEOA:

Tel.: 943 72 21 12



## Schwarzenbruck-eko agintariak asteburuan Urretxun

**URRETXU** ▶ Urretxurekin senidetuta dagoen Alemaniako herriko udal agintari berriek gure herria lehenengoz ezagutu zuten aurreko asteburuan. Ostegunean harrera ofiziala egin zitzaizen udaletxean, eta ostiralean Gipuzkoako Diputazioaren

egoitzan hartu zituzten. Larunbatean Biasteriko (Araba) ardo bodega batera joan ziren. Ezkerreko argazkian, Pello Gonzalez Urretxuko alkatea Schwarzenbruck-eko alkate Norbert Reh-i agata bat ematen; eskuinekoan, alemaniarrek adi-adi. M. LUKI

### URRETXU-ZUMARRAGA ▶ HEZKUNTZA

# Gainzuri ikastetxeko eraikin berria inauguratu dute

Larunbatean ume, guraso eta irakasleek jai giroan ospakizun handia egin zuten; lau solairu eta 400 lagunentzako moduko aretoa eraiki dira obra berrian

MIRIAM LUKI

Larunbat eguerdian herri eskolako eraikin berriaren inaugurazio ofizialerako Urretxura etorri ziren Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu Anjeles Iztueta eta lurralde ordezkari Juanjo Agirrezabala. Bestalde, Urretxu eta Zumarragako alkate biak ere ekitaldian bertan izan ziren, eta baita Martin Aranburu ere, Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeko lehendakaria.

Ondoren, Gainzurik antolatutako jaia hasi zen. Lehenengo kalejira egin zen dultzainero, txalapartari eta erraldoiekin batera. Gero, lauhun bat ikasle, irakasle eta guraso bildu ziren bazkaltzeko. Bazkaldon umeentzat hainbat joku eta tailer jarri ziren, eta zenez suzkoa ere atera zuten.

Izan ere, jaialdiak handia behar zuen izan, Inma Albisua, Gainzuri herri eskolako zuzen-

dariak adierazi duenez: «Ospakizuna zazpi urteko prozesuaren emaitza da. Orduan ipini genuen martxan Urretxu eta Zumarragan zeuden bi eskola publikoak batzeko ekimena. Birtarte horretan helburua bi herri horietan dagoen eskaintza publikoa batzea izan da. Alde horretatik, eraikin berri hau funtsezkoa da, eskola handitzea ere behar genuelako».

Gainzuriko eraikuntza berriak sarrera gisa egiten duen duen lehenengo solairu bat dauka. Bestalde, bigarren pisuak zuzendaritza, atezainaren egoitza eta haur hezkuntzako sei gela ditu. Hirugarren solairuak haurrentzako beste sei gela, tutoretza gela eta biltegi bat ere hartzen ditu. Azkenik, laugarrenean psikomotrizitate gela eta haur eskola daude.

Gainera, eraikinaren azpiko solairuan lauhun pertsona sar daitezkeen areto nagusia dago, edozein kultur ekintza



Anjeles Iztueta, eraikin berriaren aurrean zinta mozten. MIRIAM LUKI

antolatzeko. Aretoaren erabilerrarako lehenetasuna eskolak izango du, baina udalek nahiz herriko taldeek ere erabil dezakete, Dagoeneko hainbat ikuskizun egin dira areto nagusian, nahiz eta erabat hornitua ez egon.

### TELEFONOAK ▶

#### LARRIALDIK

▶ 112

#### UDALAK

- ▶ Altzaga: 943 88 37 37
- ▶ Arama: 943 88 07 39
- ▶ Ataun: 943 18 00 11
- ▶ Beasain: 943 028 050
- ▶ Ezkio-Itsaso: 943 721 303
- ▶ Gabiria: 943 88 07 34
- ▶ Gaintza: 943 88 95 64
- ▶ Idiazabal: 943 18 71 00
- ▶ Itsasondo: 943 88 11 70
- ▶ Lazkao: 943 80 54 11
- ▶ Legazpi: 943 73 70 30
- ▶ Legorreta: 943 08 40 00
- ▶ Mutiloa: 943 80 04 50
- ▶ Olaberria: 943 88 14 34
- ▶ Ordizia: 943 88 58 50
- ▶ Ormaiztegi: 943 88 26 60
- ▶ Segura: 943 88 10 06
- ▶ Urretxu: 943 03 80 80
- ▶ Zaldibia: 943 88 03 57
- ▶ Zegama: 943 80 00 70
- ▶ Zerain: 943 80 17 24
- ▶ Zumarraga: 943 72 90 22

#### EUSKALTEGIAK

- ▶ Goiztiri AEK: 943 88 91 74  
943 88 93 40
- ▶ Maizpide: 943 52 55 45
- ▶ Beasaingo Udal Euskaltegia: 943 39 58 12
- ▶ Legazpiko Udal Euskaltegia: 943 51 91 44
- ▶ Urretxu-Zumarragako Udal Euskaltegia: 943 00 43 40

#### GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur.

- ▶ Beasain-Ordizia. Egunez: Karmen Urbizu, Kale Nagusia 8 (Beasain). Gauetz: Jorge de la Cuesta, Nafarroa etorbidea, 39 (Beasain).
- ▶ Legazpi-Urretxu-Zumarraga. Gauetz eta egunez: Barandiaran, Legazpi 12 (Zumarraga).

#### GOIERRIKO HITZA

Publizitatea.

ordizia@iragarri.net.

647 319 757

Beasain. 647 319 754.

beasain@goierrikohitza.info

Herri txikiagoak.

647 319 755.

lazkao@goierrikohitza.info

647 319 755.

eimaz@goierrikohitza.info

Ordizia. 647 319 749.

ordizia@goierrikohitza.info

Legazpi-Urretxu. 647 319 751.

legazpi@goierrikohitza.info.

urretxu@goierrikohitza.info.

Zumarraga. 647 319 753.

zumarraga@goierrikohitza.info

# asirauto

BIGARREN ESKUKO IBILGAILUETAN AUKERA ZABALA

Mugitegi Indust., F Biala, 13

Tel.-Faxa: 943 72 59 22 - Sakelakoa: 659 678 979 20700 URRETXU



Eskualde osoan banatua ▶ 2004ko urriaren 5a, asteartea ▶ 1. zenbakia

'HITZA' LAGUNTZEN udalak: -  
 DUTEN ERAKUNDEAK

GAURKO  
 EGURALDIA



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA  
 (zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

## AGENDA ▶

### HITZALDIAK

**Idiazabal.** *Autoestimaren garrantzia* hitzaldia, 19:00etan Jubilatuen Elkartearen. Xabier Arrazola izango da hizlari.  
**Segura.** Jubilatuentzako hitzaldien barruan, prostatari buruzko hitzaldia izango da gaur, Kultur Etxean 19:00etan.

### IKASTAROKAK

**Legorreta.** Urriaren 14an hasiko da Udaleko Kultur Batzordeak antolatutako eskulan ikastaroa. Izena udal bulegoetan eman behar da.  
**Legorreta.** Yoga ikastaroa antolatu du Kultur Batzordeak. Urriaren 26an hasiko da, eta izena emateko epea urriaren 15ean bukatuko da.

### BESTELAKOAK

**Beasain.** Jubilatuen eta pentsiodunen egoitzako tailerrak. Bihar, 17:00etan, puntura tailerra egingo da.  
**Idiazabal.** Bihar, 18:30etik 20:30era odola aterako da Gurasoen Elkartearen.  
**Idiazabal.** Kz gunea zabalik izango da bihar, urriak 6, Pilar Eneako ganbaran.

# Lanerako prest!

**GOIERRI ▶** Joan den astetik ari dira lanean GOIERRIKO HITZAko langileak, gaurtik aurrera egunero-egunero egunkaria kalera ateratzeko



**Lan-taldea.** Ezkerretik hasita, Aimar Maiz zuzendaria, Maider del Olmo (kazetaria), Idoia Luzuriaga (kazetaria), Uxua Barandiaran (kazetaria), Erkuden Muguruza (teknikoa) eta Arkaitz Apalategi, Estitxu Imaz eta Miriam Luki kazetariak. Argazkian Iker Telletxea komertziala eta kudeatzailea falta dira.

### ERREDAKZIOA

Joan den astetik ari da lanean GOIERRIKO HITZAko lan-taldea. Aurretik ikasi beharrekoak ikasi ondoren, gaiak bilatzen eta jorratzen hasi ziren ostegun-ostiral aldera. Aimar Maiz zuzendaria eta sei kazetari ari dira lanean —Miriam Luki eta Idoia Luzuriaga, Urretxuko egoitzan; Uxua Barandiaran, Arkaitz



**Lehen bisita.** Ezkerretik hasita, Iban Arregi Bertako Hedabideetako ordezkaria, Joanmari Larrarte EKTko idazkaria, Aimar Maiz GOIERRIKO HITZAko zuzendaria, Martxelo Otamendi *Berria*-ko zuzendaria eta Loinaz Agirre *Goierritarra* aldizkariko zuzendaria. ARKAITZ APALATEGI

Apalategi, Maider del Olmo eta Estitxu Imaz, Beasaingo egoitza nagusian—. Beasainen, bestalde, Iker Telletxea komertzialak, kudeatzaileak eta Erkuden Muguruza teknikoak ere jardungo dute lanean.

GOIERRIKO HITZaren orrialdearen banaketaren arabera izango da, gutxi gorabehera, kazetarien lanaren antolaketa. Hala, Uxua Barandiaranek Beasaingo berriak landuko ditu, Maider del Olmok Ordiziakoak, Estitxu Imazek eta Arkaitz Apalategik herri txikiagoetako informazioa jarraituko dute, eta Miriam Luki eta Idoia Luzuriagak Legazpi, Urretxu eta Zumarragakoak. Hala ere, eguneroa albisteak berak agintzen duenez, malgutasunez jokatu da antolatzeko orduan ere.

Joan den astean bertan izan zuen lan-taldea lehenengo bisita, Martxelo Otamendi *Berria* egunkariko zuzendaria eta Joanmari Larrarte Euskarazko Komunikazio Taldeko idazkaria Beasainen izan zirelako. Gaurtik aurrera egunero izango dira HITZAko ateak zabalik.

## ZORION AGURRAK ▶

Urtebetetzea, jaiotza, ezkontza, jaunartzea, urrezko ezteiak, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZAren egoitzara; ekarri argazkia



### ZORIONAK

Joxe Manuel Zubeldia (Zaldibia). Muxu handi bat. Ondo pasatu festatan.



### URTE ASKOAN

Jon Ormazabal (Zumarraga). Zorionak Otamotzeko-en partetik.



### URTE ASKOAN

Mirari Zaldua (Zumarraga). Zorionak Teresa eta Nagore lagunen partetik.

**HITZA, zorion agurren tartea**  
 Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...  
 zoriontzeko, etorri:  
 HITZAren egoitzetara:  
 Urbialde plaza, 7 behea - BEASAIN  
 Labeaga, 12 - URRETXU  
**Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!**



SAN BENITO IKASTOLA  
  
 ZORIONAK HITZA ETA URTE ASKOTARAKO  
 Euskadi enparantza z/g 20210 LAZKAO

943 67 14 27 har ezazu zure banda  
  
 Z.U. Itzapaindegia, Santa Klara 8, 20400 Tolosa